AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4382

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 1ekoa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetzan sartuta dagoen auzitegiko patologiako zerbitzuko buruaren plaza betetzeko merezimendu-lehiaketa espezifikoaren deialdia ebazten duena.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren 2011ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetzan sartuta dagoen Auzitegiko Patologiako Zerbitzuko buruaren plaza hutsa betetzeko merezimendu-lehiaketa espezifikoaren deialdia egin zen.

Eskabideak aurkezteko epea 2011ko ekainaren 21ean bukatu zen eta hautagai bakarra aurkeztu da. Berak ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, eskatutako baldintzak betetzen dituela ikusi da.

Horiek horrela, ez dago Balorazio Batzordea eratu beharrik, ez baitago deialdiko laugarren oinarrian aurreikusitako merezimenduen balorazioa egin beharrik.

Aurreko guztia dela eta, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Benito Moretin Campillo jaunari esleitzea Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren 2011ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez deitutako plaza, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetzan sartuta dagoen Auzitegiko Patologiako Zerbitzuko buruaren plaza, alegia.

Bigarrena.– 1.– Auzitegiko Medikuen Kidegoaren Erregelamendu Organikoa onartzeko den otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuko 28. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, lanpostuaz jabetzeko epea hamar egun balioduneko izango da, baina lanpostuaren jabe egiteak bizileku-aldaketarik ez baldin badu eragiten, beste lanpostua utzi eta hurrengo egunetik hiru egun balioduneko epean egin beharko da lanpostuaren jabe.

2.– Lanpostuaz jabetzeko epea beste lanpostua utzi eta hurrengo egunean hasiko da, eta ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hiru egun balioduneko epean egin beharko da lanpostu-uzte hori. Ebazpena bi aldizkari ofizialetan aldi berean argitaratzea ezinezkoa balitz, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea bukatzen eta, kontra egiteko, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuordeari.

Epe horretan errekurtsorik jartzen ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako, baina beharrezkoa izango balitz, berrikusteko errekurtso berezia jarri ahal izango litzateke.

Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsitzat jo ahal izango da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 1a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.